

Arreba zaharrena

Joxean Agirre

Gaztetxoak ginela, behin eta berriz ikusten genuen arreba zaharrena sehaskaren gainera makurtu eta bere umeen loa zaintzen. Orain arreba horrek ospitaleko gela batean eman ditu azken egunak eta bere semeak ikusi ditugu makurtu eta amaren loa zaintzen. Bi eszena horien artean urte pila bat igaro da, bizitza bat, baina batzuetan iruditzen zaigu lipar bat izan dela, begien itxi-ireki bat.

Igande arratsaldea iristen zenean buruko zapia kokospean lotu eta senargaiaren Vespan bi zangoak alde batera zituztela ibiltzen ziren emakumeen belaunaldikoa zen. Ez erortzeko, senargaiari gerritik beso batekin helduta joaten ziren. Gizonezkoek, baserri girokoek behinik behin, ez zuten izenondorik erabiltzen neska kalifikatzeko. Ederra bazen, «ño» esaten zuten

eta oso ederra bazen, «ño» luzatzen zuten. Gizonezkoek sorbaldak erabiltzen zituzten laneko tresnak, pisuak eramateko, zerbaiti bultzatzeko, edozertarako. Emakumeek magala eta belaunak erabiltzen zituzten umeak goxatzeko, kafea ehotzeko, patatak zuritu edo babarrunak aletzeko edo josteko. Gure arreba zaharrena josten ikasi zuen eta ezpainen artean orratzak zituela igarotzen zituen orduak, orratzak zituela hitz egiten zuen.

Zein urruna iruditzen zaigun mundu hori, edo zein azkar urrundu zaigun, abiaduran doan ibilgailu batetik paisaia urruntzen ikusi ohi dugun moduan.

Bizitza zer den adierazteko gehien erabili den metafora ibaiarena da. Manrique-ren «*nuestras vidas son los ríos/ que van a dar en la mar/ que es el morir*» da ezaguenena. Irudi hori erabili izan dute poetek

eta irakurtzean beti mendi goietan jaitzen den erreka toren ur lasterrak irudikatu izan ditugu lautadara iristean geldotu eta patxadaz itsasoratzen. Adinean aurrera joan ahala ohartu naiz hain zuzen alderantziz gertatzen dela: alegia, umetan denbora edo ibaiko ura geldirik doala, mantsoegi, eta berrogeita hamar urtetik aurrera hasten dela azkartzen, azken urteak ziztu bizian igarotzen zaizkigun arte.

Neuretzat, bizitzari buruzko metafora ederrenetako bat Nabokovek bere oroitzapen liburuan erabili zuena da. Bizitza argi izpi bat dela dio bi betekotasun ilunen artean. Eta ederra da, ez bakarrik bizitzaren laburra oso ondo adierazten duelako, ari-maren hilezkortasunaren inguruan galdera handi bat planteatzen duelako baizik: gure arima hilezkorra bada, non arraio zegoen bada jaio aurreko betekotasunean? •

Ondarea

Xabier Izaga
Gonzalez

Garai batean modan jarri zen, nonbait, euskara ezabatu nahi zutenen artean haren benetako defendatzaile gisa agertzea, eta ikastolen kontra, euskara batuaren kontra, abertzaleen kontra eta «bulkada identitarioen» kontra defenditzen hasi ziren aziendekin hitz egiteko baino balio ez zuen mordoilo hori.

Euskara espainiar guztien ondare da eta espainiar guztiek maitatu behar dute beren arimaren parte garrantzitsua delako, inork politizatu dezan utzi gabe. Espainiarrena, frantsesek ez baitute ondare horrekiko aparteko interesik.

Ez dakit moda pasatu den; nolanahi ere, euskararen benetako defendatzaileek erne jarraitzen dute beren aitaren negozioaren defentsan, orain ETB3ren kontra. Nafarroan, Sergio Sayas asaldatu egin da Shin-Chan eta Doraemonek haurren garunetan reset egin nahi dutelako (bai, egia da hori!), eta dioenez, nafarrek ez dute ETB ikusi nahi (hala bada, ez dezatela ikusi, ba).

Madrildik ere heldu da euskararen benetako defentsa. Isabel *la Católica* Diaz Ayuso mintzatu da: ETB3 sarrarazi nahi dute arma gisa erabiltzeko. Ostia, nolatan ez zaigu lehenago okurritu?

Aldi bertsuan, Katalunian adostasun sozial eta politiko zabal baten gainean eraikitako hezkuntza eredua baliogabetu du Auzitegi Gorenak, eskoletan katalanaren erabilerak behera egin duen herrialdean gaztelania baztertuta dagoelako.

Euskararen baztertze egoera aitzakia besterik ez zutenek bezala gaztelania politizatu nahi dutenei arrazoia eman die Auzitegi Gorenak murgiltze eredua baliogabetuz. Mesede eskasa egin dio Espainiako kultura aberastasuneko ondare horri. Gaztelania ere Espainiako ondarea baita, ez? •